

## UDAKO NOBEDADEA: “OROIMINEZKO IGANDEAK”

### **Oroiminez edo oroitzeko gogoz idatzitako eleberria**

1996ko udazkenean joan nintzen Alemaniara eskolarteko truke bat probestuz, Irungo La Sallen REM/IEE batxilergo-ikasketak amaitu eta selektibitatea egin ondoren, aipatu La Salle eskolak ikasturte oso bat Gifhorn hirian egiteko aukera eman baitzidan.

Han hasi nintzen idazten nire egunerokoa, eta oharretan hartu nituen hango nire eta besteen bizipenak eta irakurritako literatura. 1996tik 1997ra bitartean han egon nintzen eta itzulterakoan unibertsitatean hasi nintzen ikasten euskal filologia hizkuntzek eta literaturak bultzaturik. Nire benetako bokazioa, baina, kazetaritza zen beharbada.

Hala ere, nere pasioa eta grina BETI euskara izan da eta batez ere, idaztea, eta Alemanian idatzitako egunerokoa eta ohar-blokek hartuta, eleberri baterako gaia josten hasi nintzen hitzekin. Autobiografia dirudien arren, ez da... ni ez bainaiz Kattalin, liburuko gazte protagonista, baina niretik ere pixka bat badu, nik bizitutakoa eta ikusitakoa baitaude eleberri honetan.

2007an aurkeztu nuen eleberri honetarako ideia eta lagin bat IGARTZA BEKETARAKO, baina ez zidaten eman; eta beraz, nire kabuz idazten segitu nuen nire eleberria eta bekarik

gabe bukatu nuen esku artean duzun lan hau. 2015ean digi-talki argitaratu zidaten eleberri osoa [www.entreescritores.com](http://www.entreescritores.com) web orrian, errelato erromantiko eta pertsonen arteko harremanen atalean haur eta gazte literatura genero literarioaren barruan. 2020.an Zarauzko Dakit argitaletxeko editoreari eleberri hori gustatu zitzaion, eta berean argitaratzeko proposamena egin zidan; esan eta egin! Urte honetako ekainaren bukaeran argitaratu zen paperean eta elektronikoki ere, eta eskerroneko eta zordun naiz, hari bederen gustatu zaiolako. Udaren hasieran argitaratutako eleberri hau udaren bukaeran aurkeztuko dut datorren irailaren 23an arratsaldeko seietan Donostiako FNAC dendetan, eta denok ere gonbidaturik zaudete.

Bestela ere, liburuan mugiltzera gonbidatzen zaituztet. Kontakizunean hiru pertsona elkarrekin gurutzatuko dira: lehenengo pertsona, tarteka hitanozko bigarren pertsona eta igandero gertatzen dena kontatuz hirugarren pertsona (elkarriketak ere bai tarteka). Ez da eguneroko bat, eguneroko baten itxura izango du, baina igandero soilik idazten du Kattalin protagonistak berak bizitutakoa eta sentitutakoa; igandero azaltzen du narratzaileak edo idazle honek Kattalini gertatutakoak hirugarren pertsonan.

Liburuko protagonista Kattalin 1997ko udazkenean hasi zen euskal filologia ikasten Gasteizen, eta bertan bizitzen jarri. Noizean behin, Irulegi bere herrira joaten zen, familiarekin eta lagunekin egotera. Horietako joan-etorriko batean, bere urtebetetzeagatik egun batzuk Irulegi herri baxenabartarrean pasa eta gero, Iruñetik Gasteizera bidean doan trenean dago Kattalin. Trena bat-batean geldituko da iluntzean. Badirudi matxuraren bat gertatu dela. Kolpe batez bidaiia-poltsa gainera eroriko zaio Kattalini eta argiak itzaliko dira. Argiak berriro piztean, bidaiia-poltsa eskuetan izanen du Kattalinekin eta treneko matxura konpondu bitartean, poltsa irekitzen du. Bertan, igandero idazten duen egunerokoa ikusten du, eta igandea

izaki, idazten hasten da. Orduan, bere barneko ahotsak hitz egiten dio eta azkenerako idazteari utzi eta hasieratik irakurtzen hasten da, oroitzapenak bata bestearen gibeletik datozkion bitartean.

Kattalin Landaburu da kontakizun honen protagonista, he-mezortzi urteko Ipar Euskal Herriko gazte bat da, eta beste sei neska gazterekin batera lehen aldiz aterako da herritik atzerri-  
ra, Alemaniara hain zuzen ere: urtebeterako alemanezko klaseak hartzera. Euskal Herritik kanpo bizituz sumatutako bakartasuna agerian dago eleberri poetiko honetan, etabertan hizkuntzarekin dituen arazoek eta inkomunikazio egoerek bere bakarrizketetara bultzatuko dute Kattalin, eta horretaz gainera, igandero hutsik egin gabe Alemaniara joan aitzin lehen-gusuak oparitutako egunerokoan idatziko du. Istorioa aitzina joanen da barne-bakarrizketen, tartekako elkarrizketen eta iganderokoaren bidez, eta Kattalin pixkanaka aleman hizkuntzaz jabetuko da. Kantu leun baten moduan, erdia erabat ulertu gabe eta beste erdia irudikatuz Goetheren lau urtaroak deskubrituko ditu, eta era berean Alemaniako bere lau urtaroak idatzi, gainera: Kattalinek alemaniarrak gehiago ezagutuko ditu, lagun berriak egin, eta horien artean lagun min bat ere bai, bere lehen amodioa. Amodiozko istorio bat gehiago da, baina beharbada zerbait gehiago dela ere sentituko duzu, auskalo!

Udazkenean hasten da eleberri labur hau, eta honako Goethe-ren UDAZKENA olerkiarekin hasi ere:

### UDAZKENA

Fruituek bizitza ekarri diote gizakiari; adarretatik zintzilik  
daude fruitu batzuk, gorriak eta jostariak dilindan, sagar  
batek agurtzen gaituela.

Zuzentasunez jokatzen du bizitzako makilak, eta maitasuna

uzten digu Jainkoak jolasaren inspirazioaz.

Erakuts!

Zuzenbidea irakatsi zeuen maitasuna bideratzeko; baina  
inspirazioak ez dizue uzten otoitzerako denborarik.

Zinpeko suziria hartu, eta sinistu gizakiarengan!

Hartu Maitasuna letra larritan, eta tira bertatik maite  
duzun hori zoriontzeko.

Sorkuntza oro Naturaren artelana da.

Jupiterren tronutik bertatik argi izpi boteretsua jaurtikita  
gureganantz hurbildu, eta mundua tiroz josten du.

Lagun maiteok, bultza ezazue dena serio eta maitasunez;  
maitasunez berregindakoa aurrekoa baino ederragoa izan ohi  
da.

Haurrek pilota paretara jaurtikitzen dute, eta berriz ere,  
haiengana itzultzen da pilota; maite dut biziki joko hori,  
lagunak niregana bueltan datozelako.

Beti desio dut Dena, eta zuk zeuk ezin duzu Dena ukan,  
baina hala ere morroi bat erortzen zaizu Denetik.

Iratzar zaitezte, ahul horiek, Ideala den hori gauzatzeraz;  
errespeta ezazue baita ere, jaioberri bat bailitzan, Natura.  
Nori sinisten diozun, adiskide, nik esan diezazuket: Bizitza  
sinets ezazu, liburuek eta hizlariak baino hobeki irakasten  
omen du...

Lore guztiak joan beharrean dira (oraindik dirautenak  
bederen), fruituak zorionduz; loreek eta fruituek batera  
ematen baitizute bakartasuna.

Egia penagarria!

Hutsegite erabilgarririk tiraka ari naiz.

Egia minatik eta sufrimendutik ateratzen da, zerbait

erdietsiko duelakoan, agian...  
 Hutsegite batez penatzen al zara?  
 Inoiz ere ez!

Baina hutsegiteko uneak berak penatzen du; bidearen  
 amaiera (Finisterre alegia) ikusiko balitz bezala.  
 Haur arrotzok, ez zaituztegu maite izan horrenbeste inoiz  
 bat izanen bazinate bezala; izan ere, hutsegitea, haur  
 bakarra bezala, geure bihotzetatik horren hurbil dago...!  
 Hutsegiteak ez gaitu sekulan ere uzten; izan ere, hark  
 erakartzen gaitu beharizan zulo handi batera, beti egiaren  
 barnera eramanen gaituen nahi dugun arima isil batekin.  
 Ezinen luke beste inork berdin egin; izan ere, bakoitza  
 berdina da bere gorentasunean.

Nola hori egin? Norberaren barnea gainezka egiten duenean.  
 Zergatik batzen dira horren gutxitan gustua eta  
 genialitatea?

Bakoitza Indarraren beldur da, kontuan hartu beharreko  
 frenoa....

Munduaren ugalketa oro arrazoizko diskurtsoak dira,  
 gustukoak ez direnak; gustukoak ez diren diskurtso huts  
 horietatik ez dator inongo artelanarik.

Zein motatako irakurlea nahiko nuke?

Aurreiritzirik gabe, soilik ni, bera eta Mundua ahanzten  
 duena, eta liburuan bakarrik bizi dena.

Hauxe baita ene adiskidea, nirekin batera hark nahi duelako  
 paseatzen dena; gonbida nazazu bihar esertzera, gaur utz  
 nazazu kanpoan.

Zein sakon dagoen arima ahalguztidun hau, baliotsu bere  
 helbururantz joaten da, eta ni neu bitartekari uzten nau.

Haur baten panpinaren balioa duen txanpona gogotsu  
botatzen da aintzira batera; zu izanen zara Jainkoa haur  
guztien artean.

Nola egiten du Naturak bere gorenean pertsonak elkartzeko?

Pertsona bera nahikeria artean barneratzen da.

Herri sentiberan ez diot ezeri inoiz eutsi; lagun txarrak  
kanpora botatzeko aukerak agertzen dira.

Egun nahasiei tira egin behar zaie, erori arte, lasaitasun  
egoera berreraikitzeko.

Hainbat talde desberdin mantendu behar dira, batzuk  
barnean, beste batzuk kanpoan ekinez; urte aunitz joanen  
dira, eta talde desberdin horiek bat eginen dira.

Pertsona bakoitzak bere taldea osatzen du; hasierak beti  
izaten dira debekatuak! Baina gure taldea, libreki, berez  
ulertzen den izaki bat da.

Ene seme maitea, nahi al duzu libre gelditu? Zuzena dena  
ikasiko zenuke, eta aski izanen zenuke aurrera zuzen  
begiratzuz bizitzea... gorantz begirada bat bota gabe, edota  
behera nahiz aldeetara so egin gabe.

Nor ote izkina bakoitzean aurkitzen den gizon noblea?  
Berdintasunera makurturik dagoena kanpora begiratu gabe...

Ba al dakizue txiki izatea zertan datzan?

Zuzenbide txikia markatzen du hark, hain zuzen ere,  
handiak egindako handitasunaren aztarnak segituz.

Zer da saindutasuna?

Arima anitz bat eginik lortzen da, eta erraza dena soilik bere  
barnean hartzen du, errege koroa baten moduan.

Zer ote sainduetan sainduena?

Gaur eta beti arimen sakonean sentitzen dena, eta beti ere bat

egiten da.

Zein ote gobernu edo estatuen atalik duinena?

Hiritar ahula omen; forma hutsalpean lehengai baliotsu  
moduan mantentzen da.

Zein da egiatan printzea?

Betidanik ikusi izan dut hori: printzea den bakarra, hala  
izateko nahia duena da.

Goiko ulermena falta da, baita beheko borondate ona ere;  
zuzentasuna gidatzen duen defentsa sutsua, eta agian,  
borroka batean amaitzen den bidea.

Errepublikak ikusten ditut, eta hori da ene ustez erarik  
onena, estatuaren atal guztiak gobernatzeko... ala?

Laster, soilik norbera ezagutuko gara, eta besteak balioesten  
ikasi, Bakea erdiets dezagun.

Inork ez ditu zatiak maite, sorkuntza osoko zatiak alegia;  
lehengai banakoek beti eta betirako gerran egotera  
garamatzate.

Bi eratan esan dezakegu Egia, paradoxa den egia: forma  
irekian Herria beti printzearen aberria izanen da.

Zuk bakarrik ahots gora hori aldarrikatzean, esan beharrekoa  
ezkutatu egiten da; norbanakoek osatzen duten jende pila  
desagertzen da, amesten duzun guztiaren erdian.

Orduan, zu izanen zara erregea, eta amesten duzun  
horregatik borrokatu ahal izanen zara; baina Itun  
bakoitzean estatu-gidariari deituko diozu.

Argi eta zuhur, denekin mintzatuko da, gora eta behera  
paseatuko du bere batuta, eta ministro izaten segituko du.

Zein nagusi ohoratu beharko dut orduan?

Besteak baino argiago eta finago dena, oraindik ere

arrazoitzen dakiena, eta jende askorentzat jatorra eta ona  
dena.

Zu zeu argiena bazina, beren talde boteretsuan  
sartuko zintuzkete; baina pertsonarik mikatzena  
bazina, zure etxean giltzapetuko zintuzkete, arrisku  
publiko izatearen akusaziopean.

Amets horietatik guztietatik iratzarriz gero, ez gaitzazu gu  
gehiago zaindu: has zaitez kantari!

Kanta zure lo-kanta, amets gehi  
ago egin ditzazun (egin  
ditzagun).

Oraingo honetan zuk, o Udazken, soilik leunki lurreko orbela  
sakabana ezazu; eman diezazkidazu beste aldi batez  
fruituak.

Goethes Herbst - Goethe'ren udazkena

*Ainara Maia Urroz*